Zirikadeak

LAUAXETA

Larunbateko ixaten diran astrapaladeak, orainguan be ixan dira. ¿Zegaiik? Asterokotxu batek darabil Bilbao osua. "Jagi-Jagi" entzun ordukoxe begi gustijak zabalduten dira ta belaiijak zoli-zoli geratzen dira.

Baña "Jagi-Jagi,,'ko mutilak eztira edozelako mutilak. Orainguan egin daben baiabaskerija, jakingaiija da benetan. Kalietan salduterik etzan, urten baño len atrapetan ebelako. "Fiscal" jaunak eiudun auikitu dau, ¿bai? eta batu biaí da, jauíiarijak iñuan. Eta eítzañak, alpeíkeri-barik batzen eben.

Baña tranpakaz uíun ezin Juan ixaten gara. Aste onetako "Jagi-Jagi" azkaíak, idazkirik eztau ekaíi, argazki batzuk baño, Ezerez. Iñundik be ezin oratu ixan dautse. "Fiscal" jaunak eztau zeregiñik ixan, baña goxian-goiz aginduta euken eítzañak batu egijela, ta kalian agertu zaneko batu eben.

¿Baña denuntzi-barik batu? ¡Ori ezin ixan daíeken gauzea da! Bai olan dirudi, baña emeko gauzak eztira makalak. Eítzañok aío-aío egozan euren eskubetan "Jagi-Jagi" ebela. Andik ebiltzan notiñak, ostera, ikeratuta egozan ezer ezeuakan asteroko ori batu ebelako.

Onetan konturatu yatzuzan "Jagi-Jagi,,' kuak adaía jo eutsela ta lotsaz egozan eítzañok. Aítu izpaíingi zenbakijak eta atzera banandu ebezan.

Amaikatxu baíe ta iskanbila entzun ziran txaidietan. ¡Konke denuntziau bako izpaíingija batuteko agintzeak, goxian-goiz emoten dira! Ori da zuzutza edo kalabazea. Orainguan txaíto uíten dautse tranpeak.

Baña izpaíingijak eztabe ezer esango, eíderaz beintzat, bestela batuko dabez. Azkatasun ikeragaíizko aldijetan ei-gagoz.

卐 卐 卐

"Amayur" asterokuaren auíka be asi yatzuz. Iruña'ko piskala ontzat geunkan, baña gogai au kendu dogu burutik. España'ren auíkako itzak eztiranian, eíkalaren kaitezkuak idoroten dauz.

Geure poza ezta txikeía. Bakian itxiko dauskuben eguna, egun txaía ixango da. Etsai ezer ezari etxeko jaramonik egiten Areyo eíimiari, ostera, ezin bakian itxi ixaten dautsogu.

"Iru Gudari" antzeztuteko asmuetan ebiltzan erandiotaíak, baña iru gudari ez sei aizteak, orainguan ezin antzeztu geinkez. ¿Ze demoniño dauko antzeíki oíek ba? Bakaldunaren auíkakua dalako gaierazoko eben. A, oraintxe uleítuten dogu, emen diran España'í gustijak bakalduntaíak dira.

Bakalduna noiz etoíiko dan begira dagozka "Iru Gudari" ez antzokorik eztabe ikusi gura. Euzkotaíok ostera, gauí atzo eta areñegun, bakaldunak gora-bera, nasai bixi gara.

卐 卐 卐

Uíezko astia ixan dogu aste au. Asaldako eítzañik eztoguz txaidian ikusi, ezta Garbizu jauna be, puts egiten. Aste osuan ezta puts asko ixan. "Guardia de asalto" jantziía uíteten asi ei-da Garbizu jauna. Bere semia beintzat, gaurdi oíein osagile ixentau dabe. "Viva el enchupismo".

卐 卐 卐

Lizaía edo Estella'ko batzaí nagosijan ez ei-ziran agertu Beunza eta Bilbao jaunak. Beunza euzkotaía eztanik ezin esan geinke ta karlataí naste-boíasteko oíein batzaíetara ezta juaten. Baña ¿Estepantxu? Ai ene bijotzeko Estepantxu. Bilbao 'ko Esteban, Primo de Rivera gaxuaren adizkidia eta dictadura-aldijan Bizkai-Aldundi'ko lendakarija ixana, i az mutila i lasteí "neskatotxubaz" be laztanka asiko az. Eíderaz "la niña". ¡Eíkala gixona, eíkala "diputau-edo" egingo abe-ta!

卐 卐 卐

Donostia'ko "La Constancia" andera gexorik ei-dago. Ikuítonak eta Doipurubaren onespena eztauz aítu gura ixan eta Oyarzabal jaunak "excomulgau" dau seguro be. Oíen beste urte ixan eta ain zoro. Aren osasun-aldez eztogu otoirik egingo.

卐 卐 卐

Karlataíak batzaí nagosi bat egingo ei -dabe. Zumaíaga autu dabe euren indaía erakusteko tokitzat. España'í asko etoíiko ei-da. Tira, orain aíte eldu diranak naiko ziran, ba. "El País Vasconavarro,,'tik bere asko juango ei-da. Txapel zuririk eztaukona, etxian geratu bedi.

Trabuko batzuk daukezan jauparijak juan daíekezala zabaldu dabe.

Jesús Ostolaza
BERGARA
卐
FABRICA DE INSIGNIAS DE ESMALTE FINO
AZALIRARRI MIEZKO IKURRINEN OLEA

ERRIJETATIK

ZEANURI

BAKO'TXA BERE TOKIJAN.—Lengo igandeko neure idazkijan agertu zan eíatutxo bat arteztu biaíean aurkitzen naz. Ipinten neban, Lejartza'taí Ander eta Olaso bere emaztiaren umetxubaren amabitxija Olaso'taí Domeka neskatilea zala, baña esan olan; Iñakitxu'ren amabitxi Ortuzaí 'taí Elixabete ixan zan. Eíatutxu onegaíik, azketsi.

EUZKEL-IXENA.—Iñaki euzkel-ixena ipiñi dautsie Ortuzar'ko Arana'taí Kepa eta bere emastiaren umatxubari. Zorijonak eta jaíatu bide oíeri.

EZKON-DEYAK.—Igaítua'ko Loitxate'taí Julene eta Lejartza'taí Deunoro'ren ezkon-deyak igandian amaíu ziran. Larunbatean ezkonduteko ustea dabe. Zorijonak ezkonbaíi bijoi.

ANDONI DEUNA. — Uíeratubaz dua ila onen 13'a. Egun oíetan oste aundija Urkiolaratuten dala ta, Aíatia'ko abeítzaliak gertakixun aundijak dabiiez. Deun oíen onduan España usein eta loikeri utsa baño ezta ixaten; eta euzkotaíak, nasaitasun au ezin ikusiía, euzko-jolasak gertetan dauz, santarkeri gustijak aspiratu eta euzko-bijotzak gora jasoteko ustez. Ezpatadantza, gorulari, albokari, naíukiñolari eta txistularijak ixango dira.

¡Euzkotaíak! Atzeíiíaí gustijak gugaz egiten dabena, geuk euren edo España-jolasakaz egin daigun, eta oíetarako, Urkiola'n egingo diran jolas nastubetara ez saítu.

YUÍE'RA. — Euzko-Gastetxu-Batzak, Aíatia'n lenengoz gertauriko jayak Yuíe'n ixango dira. Eguna baíitz ila onen 15 ixentau dabe. ¿Zeanuritaíik, batez bere gastetxurik, jai oíetara joan barik gelditukо ete da?

NASKALDIJA.—Aurtengo ikazkixunak amaíuta Gazteiz'tik etoíi dira: Manterola, Añibaío, Zuluaga, Gisasola, Atutxa, Lapatxa, Urutxuíu eta Ozerinjauregi jaupari ikaslak.

Sagarna'taí Joseba Agiíe'taí E. eta Etxezaíaga'taí Joseba baíiz (Tamalaundijagaz) España'ren otseintzarako bertan gelditu dira.

AÍEGI'TAÍ BAT.

MARTIKORENA
Begiyetako gaixoen sendegillea
Garibay 13 bis, 2.° - DONOSTIA

ZORNOTZA

UGUTZA.—Andoni euzkel ixen poliíagaz Isasi'taí Eíaimunda ta Amuritza'taí Damene'ren semia ugutzau da.

Aía-amabitxi Onaindia'taí Andoni ta Auritza'taí Estepane ixan dira.

Baía, Miren, Eíakela, Susane ixenakaz, Urkixo'taí Kerarda ta Ernando'taí Imanole'ren alabea ugutzau da.

Aía-amabitxi, Urkixo'taí Jon Koldobika ta Urkixo'taí Jayone, umiaren osaba-ixekuak ixan dira.

Zorijonak.

EUZKO-LANGILIAK. — Euzko-langilen alkaíasuna gertu da ta berialaxe ixentza mordoa batu dabe.

Aspaldijan tamalez bixi ixan gara, eíiko langilak atzeíiíaíakaz ikusten doguzanian batuta, biaíezkua ixan da ba euzko-langilen alkaíasuna iraztia.

Bazkun baíi au ikusten dogunian, pozik gagoz, euren oíijak beteta biaí dan tokira eruaten dabezanian, eta esan daustien lez, uste ixan daben baño bazkide geyago batu dira.

¡Au poza! Ekin gogoí, batu danok alaíasunez, geure burubaren jaube bai garala nun-nai ageíiu biaí dogu ta.

KATALANDAÍ-ALDUNAK BILBAO 'N.—Euzkadi egunerokuak iragaíi eban lez, katalandaí-aldun ta lagunak emendik igaro ziran.

Geure eíi maíiak be aíera begikua egin dautse. Uri-Buru-Batzaíak lendakari, Batzoki'ko artezkari eta E. A.-B. be antxe egon ziran.

Neska-mutikuak gorulari ta ezpatadantzari jantziía bidera urten eutsen, eta aíera maíekoí au ikusi, ta U. B.-B. lendakarijaren eskariz, euren taíantetatik jatzi, ta Batzokira juan ziran.

Txistularija buru dala, neskato-mutikuak biribilketa baten zoli-zoli joan ziran.

Batzokira eldu ondoren, katalandaí baíek Batzoki-leyotik eskaíak emon ebazan, biíaítian orok besaíkatu, dana zan poza ta atsegiña. Zorijon aguíik gozoena dagitzubet.

JAUREGI'TAÍ JULEN'EN ITZALDIJA.—Igaro dan larunbata gabian, iragaíiía egon zan lez, itzaldija ixan zan.

Batzoki-aretua beterik aurkitzen zan izlarijak aguí gozo bat egin ondoren, itzaldi gaíatz, ta mamintsu-mamintsuba egin euskun, argi-argi geure begijen auíian ikusten gendun sozialisten irakatsijak, gixadijentzat kaltegaíijak dirala.

Itzaldi erdijan, amaikak inguru ziran, Galdakano'n beste izlaribat itxaroten eukala esan euskun, eta ezin amaíu ebela.

URKI.

MOTRIKO

AGUÍ.—Aguí bat biotz-biotzez bertako idazle ta irakuíle guziai emen natoíkizue ni ere zerbait idazteko asmoetan baldin.

"Lauaxeta" jaunak basterko baten bada ere leku piskak ematen badit emango didazu ¿e?

SORALUZE'RA.—Gar aundia dago uri ontako abeítzale aítean Soraluze'ko jai ospagaíiak ospatzera joateko. Begiratzea besterik eztaukagu bertako egitarauai iñoiz ere aztuko etxaken bezelako itzaldia entzungo dituzte "Altzeta", Polixena, Monzon ta Agiíe'ren ezpanetatik. ¡Ernai ba Motriko'taíak egun ortan ez dezala iñor ere gelditu Soraluze'ra juan gabe. ¡Abeítzaliak! guziok Soraluze'ra il one 4 an.

IZPAÍ BALTZA.—Igaro dan astelenian 82 uíte zituala jaunak bereganatu du Kruselegi'taí Domeke. Irakuíle otoi.

ANDONI.

Uaía.—Idatzi nai dezunian.—L.

ELGOIBAR

OÍILA'KO LORAK.—Il gustian ozte aundia ikida oíila'ko loretan bai txadon nagusian, bai 'exoetxe eleizatxuan. Eleiztxiki onetan bukaera emateko eleizkizun polita egin zuten, neskatxuak aingeru jantzita abesti ta eskiñi edeí, zuzendu zien Amai zerukuan.

JOSU-BIOTZA'REN ILA.—Oste aundiarekin asiera eman zayo Josu-Biotza'ren ileko eleizkizuneri. Il baíuan bi iruíun-txiduo-bi egingo dira; bata Koldobika-taíentzat itzaldiak zuzendurik Abauns'taí Andoni Lasarte'ko Augustine lekaime etxeko apaiz aígiak, eta bestia Josu Biotza'ren (Apostolado de la Oración) alkartasunekuentzat itzaldiak zuzendurik aita Unduíaga Miren Biotza'ren lagundiko lekaidiak.

ELEIZAKUAK.—Aítuta oso txaíto aíkitzen da Egia'taí Jone "Zabala" basaetxeko amona.

EZKON-IZPAÍAK.—Egun gutxi baíu ezkontzeko dira, Azkue'taí Geígori, Lizundia'taí Kaímele neskatila politarekin eta Gisasola'taí Andeí eibaítaía, Agiíekomezkoíta'taí Marzeli lirañarekin.

Zorionak auíez.

JAYOTZA.—Auítxo bat geyagokin getu zayote sendia, Laíañaga'taí Jon Joseba, eta Zubizaíeta'taí Josebe Julene (aldapa) baseíikueri. Zorionak.

AUTU.—Uri ontako (notario) autu dute, on Juan Puig Lazaro. Ongi betetzia opadiogu bere seregiña inguruko osteareekin.

SORALUZE'RA.—Gauí ainbat abeítzale biurtukoda uri onetatik. Oítarako tximis-bultzi berezia (expeziala) autolatu da o'50 lauíiekuan jun etoíia. Tximisbultzi au aterako da Soraluze'ra aíatsaldeko ordubi -ta lauídenetan, Elgoibar'erako aterako da Soraluze'tik saspirak eta berogeita bost minutuan.

Abeítzaliok gustiok Soraluze'ratu beaí gera igandian.

JANTZI AÍTZIA.—Jun zan ilan 26 Deuna Kalare lekaime etxian Ondaíoa'ko Afasate'taí Miren gastiaren jantzi-aítze -toma de hábito izan zan, "Maria Eukaristia" izena jari zioten lekaime etxian izateko. Oítarako beítako eleizkizun edeíak, egin ziran.

Amaíetan jaupa abesturik beítako lekaimiak "Cunetipotens" jaupa (Gregorianna). Jaupagile ta jantzi ematen Zenaíuzabeitia 'taí Eíamon, lagundurik Uíkiza'taí Sekunda, eta Kanpos'taí Satuíniu irurak Ondaíoa'ko semeak. Itzaldi bero bat zuzendu zion lekaime beíiari Opakua'taí Estanisla emengo apaizak. Eleizkizunian apaiz eta sendi ta uriko ostetza elizaratu zan. Gero oitura dan eran bazkaria egin zuten leikame etxeko gela baten.

Zorionak lekaime beíiari, baita bere lagun lekaime ta sendikoeri. Aita Pantzeska Doñea'ren alaba ona izango alda lekaime gaste beíia.

NASKALDIJA. — Igesi zan igandian, Emakume Abeítzale-Batza'ren zabalkundera Legazpi'tik etoíita, agurtau diíugu Aztiria'taí Margarita, Aparizio'taí Miren emakume politak.

Ondaíua'tik etoíita Etxebeíia'taí Eíuperta bere sendia. Emen aíkitzen da. Ondasua'tik etoíita Etxebeíia'taí Krisante nes katila lirain ta polita.

AIXERIXA.

Aranburu'tar R.
AZAL ETA TXIZ-BIDIAK
Fueros, 5, 3.° DONOSTIA

ABADIANO

ERIJOTZA.—Oíila-20'gaíeneko goxeko iru ta erdijetan jaunaren beso maíekoíetan Uriguen'daí Pele il zan (G. B.). Bere sendijari lagunduten dautsagu atsekabian, batez be, Uriguen'daí Gotzon geure adizkidiari. Abeítzaliak emakume zintzo bat galdubaz atsekabetuta dagoz. Beraíen otoi -dagigun.

JAYAK.—Juan dan igandian Sindicatokuak jai aundijak euki dabez. Egun edeía igaro leben. ¡Ba zan an abestu biaía ta dantzau biaía! Sabela bete ondoren abijadeaz pelota tokira Korotzaíi ta enparabak uíten eben. Danok bildueíez gengozan frontoya botako ebelakuan euren zalaprastada ixugaíijakin. Atzenian Korotza'íik irabazi eban.

¡Mutilak, oí atxondo aldian baljak indaía!

ETOÍIJAK. — Madrid'etik Boneta'taí Andoni ta bere sendija udea igaroten etoíi dira. Ondo etoíijak abeítzale zintzo oíek.

SORALUZE'RA. — Abenda-Etxia'ren askundia dala-ta asko juango dira emengo abeítzalietatik. Durango'tik bertaraño bultzi berezija eukiko dabe. ¡Ia abeítzaliak, danok Soraluze'ra!

LUISTAÍAK.—Egunero gogoí diñaíube abestijak ikasten, ila-onen 11'gaíenan emen egingo daben jai ixugaíija gertetan. ¡Auíera luistaíak! Pelota-joku ta añeketarijak eta abaí ixango dira.

BEKETXE.

Artua eta babia txikitutzeko makiñak;
Txomin Olano'k
Saltzen ditu, merke
Plaza de las Escuelas, 10 g'n - Donostia

UBIDEA

EGURALDIJA. — Eurija biaí ba-zan, eurijori eldu yaku. Esakun zaíak diñuana betetan ba-da ¡gure eíukaíijak! Igokunde 'ko eurije beíogei-eguneko agije ei-da-ta... ¡Aguí gure artazoíak! Lapuíaren antzera ateí-unetan egin biaíko ta alan be, Jon deunetako amaíutia ezta eíaz ixango.

Garija'rentzako be ainbeste euri ezta ona. Aonentzako aukerakua oíila nabaí eta bagila argi-egitia da. Baña guk alan gura ixan aíen egin biaí dabena ixilik dago-ta itxaron eta ikusi egin biaí. Eztago beste biderik.

AÍENTZAK.—Urtero lez igazi dan larunbatian notintza andija yuan zan Urkiola 'ra ta bertoko txadonan eleizkixun-edeíak egin ziran.

GEXORIK. — Bilbao'n bere aiztiaren etxian gexorik auíikiituten da Aldasoro'taí Ebariste anderañua, baña egun onetan obari andija egin dau. Poztuten gara. Arin osatu Ebatxu Jon deunetan ona etoíteko.

OÍILA.—Il oíetako eleizkixunak abesti edeíakaz gustiz edeíto egin dirata jente asko erdu da euroetara.

ZIXAK.—Aurtenguak juan ziran. Gorbea inguruban baleteke banaka bat idorotia baña besterik ez. Nik, beintzat, eztot asko yan eta beste askok bez. Uíengo uítian geyago (G. B.).

BATZOKIJA.—Zigoiia'ko Gopegi'n igazi dau igandian ixan zan batzokija'ren zabalgundia ta Gazteiz, Murgia, Agurain, Legutiano ta Ubidea'tik jente asko batu zan. Izlarijak be edeíto egon ziran.

BASURDE-KUMAK.—Lezama'ko Izagiíe'k bosteun lauíleko atara ei-ditu bere basurde-kumeakin igazi dan igandian Mungia'n. Bide oíetatik txindi asko atarako dau gixon oíek.

ETXE-BAÍIJA.—Armendariz'taí Baurle ta senaíak egiten daben etxia auíera dua ta aurtengo uda-onetan amaíuko daun ustian gara.

GERTAKIXUNAK.—Bizkor dabil jentia Jon deunetako gertakixunak egiten. Olantxe; asti gitxigaz eta aíapataka baño, auíetijaz astiz obeto egiíen dira gauza gustijak.

ARETXETA.

MAÑARIA

LENENGO BARIKUBAN.—Seiretako mezan, Josu'ren Bijotz gozuaren opaz, Jaunaítziak eta otoitzak egin ziran; eta iluntzijan be otoitzak eta abaí, asmu bardiñaz egin ziran.

Baía, bagila'ko iluntze gustijetan be Josu'ren aintzazko elizkixunak ospatuko dira. ¡Aintza Bijotz Deunari!

JUAN-ETOÍIJAK. — Ereño'tik etoíi zan alditxu bat igaroten Ortuoste'taí Miren Jasone neskatila.

—Galdakano'tik, Bustintza'taí Miren Gixane neskatila.

GEXORIK.—Egunontan gexorik aurkitzen da Laíea'taí Eíegiñe "Goti,,'ko anderea.

EZKONTZA. — Lasteí ezkontzen dira Ortuoste'taí Margariie neskatila ta Arteaga'taí Lonarta mutil abeítzalia. Zorijonak.

Eguna igaroten igandian etoíi ziran Gernika'tik, emen eguna igaroten, Rui-Wamba'taí Pilomen eta emaztia euren seme-alabakaz.

DURANGO'RA. — Igande aíatsaldian juan gintzazan Durango'ko Astarloa-Etxia 'ra, ango umiak, euzkerazko Kistaí-Ikasbidea'tzaz egin ebezan azterketak ikusten. Eta bertan, umetxuak, euren irakasliaren iíaun sakonari polito ta egoki erantzuten eutsoelako, ta ainbat abesti ta berbaldi edeíak entzun gebazalako, berebixiko une atsegintsu bat ixan geban.

Zorijonak, irakasliari ta umetxuari; ta batez-be Belaustegi'aí Pantzeska abade biaígiñari.

LASTER.—Emeko euzko-jaya noz ospatuko dan, ganeko egun baten jakingo dogu. Oíetarako gauzak atontzen diñardugu ta.

¿EGINGO ETE DA-BE BA?—Urkuleta'ra (Urkioleta'ra) bitxabala egiteko, bidia neurtzen asi dira; ta diñoenez, lasteí asiko dira biaíian. ¿Egingo ete dabien? Neuk eztakit ezertxo be; baña, bitxabal ori egiteko, dirua ugeri biaíko ei-da. Ogei bat mila ogerleko eskuartian biaíko dirala, atzo aíatsaldian notin batek esan eban eta. Oíaiik, ortik-emetiko oíenbeste ezkuí piiatzeko eskubara ziatza erabili biarko dabe... Bestela eztakit...

Bide-egiíe onegaz asko pozez dagoz; lana ugerituko dala-ta; baña, ezta laíegirako. Saíiian, ba, etxeko galbayaz kanporako eralgiten dogu ta...

Entzun, antziñako atso zuíak esaten ebana. "Galbayak uruna kanporako, nire umiak eztira aseko".

MAÑARIKO.

DEUNEN BIXITZA

Karacciolo'tar Pantzeska Deuna

Italiaía zan Askani-Pantzeska. Abruzo -erkiko Donemiren urian jayo zan 1563 'gaíen uíteko Uíiaren 13'an Ugutzaldian Azkani-izena ezaíi eutsoen eta luzaroan be izen ori eroan eban; baña gero, ziñeskañak egitorduan, Asis'ko Erkaba Deunari eutsan berarizko oneraspena zala-ta, Askani gasteak bere izen au itxi-ta, bizikeraz antzeztu nai eban Asis'taí Pantzeska'rena artu eban betiko. Azi-ikaskuntza ona emon eutsoen Askani'ri odolez baño onoimenez garbalago ziran gurasoak. Bederatzi urte ebazaneko, latera ondo be ondo ei-ekian eta apain eta dotore itz-egiten ei-eban. Gero, izkiluak erabilten eta gudaritzako arauak ikasten ekin eutsan Askanik bere gastezaroan. Zeregin au ezta, ziñez, egokienetaíkoa gogo garbiz eta ekandu onez biziteko: ori ta guzti be gure gaste onek ez eban iñoz nabarmenkeririk egin eta gustiei onerako ikasbidea emon eutsen beti, ezta gitxi!

Ogei urte ebazala gexo txaí bat bialdu eutsan Jaunak, eta gexoaren ondorenez, gorputz gustia legenaíez estalduta gelditu yakon. Lendatzaleak ezin osatu-ta, bertan bera laga eben: adizkideak be, gexo txaí ori erantziko ete-yaken bilduíez, iges-egin eutsoen. Gauza oneik gogoratuaz, luíeko ondasun gustien uskeria argiro ikusi eban Pantzeska'k eta Jaunagana biurtu zan, esanaz; Ene Jauna, osatu ba-nagizu, mundua itxi ta lekaide egingo naz; bizitza osoan Zuk, nayen dozuna egiteko gertu egongo naz; otsein ta moíoi izango natxatzu.

Pantzeska alatzez, mirariz, sendatu zan eta bere eskintzaria beteteko eretiaren bila ebilan. Onetan ba-datoí Neapolis'era semideak, ikusi ta ikertu beaí ebazala-ta. An egoala, ba-diñotso adizkide batek: Ta goazan ibiltera, egurastera; lagun zakiten Pantzeska'k zegaitik be ez ekiala, alcalde edo atxakia aurkitu eban lagun aregaz ajoateko, ta uíengo egunean au entzun dau bila etoíi yakon adizkidea areriosastakai ukaldiz zauritu ta eran ebela. Lagun arekin urten ba litz, bera be nor bertek garbituko ebala-ta, jazopen negargaiori Jaunguaren oartzat artu eban Pantzeska'k. Bere eskintzaria albait l steíen teteko asmuz, otoitz luzeagoak egiten, arau ta ilduraz bere burua nekatzen zan Pantzeska. Andik lasteí Neopolis'en bertan jaupari egiten da eta zurien anaidi beste izenez Miren Deun Sorosleareen gundian, sartzen da, otoitzari ta arimaiirabazteko egiñen andiari gogozago teteko: Jaunaren maitasunez gexoak ramatxilotuak ikertu ta eriotzara epaituei ken-laguntzak emoteko.

Ba ziran Neapolis'en Zurien anaidibazkide bi, Jon Austin eta Pabirki, andietako gizonak. Jon Austin eleizan apatz baíi bat irasteko autesi eban Jaun Autespen ori Beltran'daí Koldobika denak, iragaíi eutsan Austini, zu Baleazeaí ebilala. Neapolis'en idazkotxu bat aldu eutsan Austiñe'k bere adizkide birki'ri iragarpen ori beteteko erabilia asmuak adierazten ea oíetarako beaí eutsan laguntza eskatzen. Idazkia Pabizki'ren kuetara joan beaíean—Jaungoikuak ebalako-edo-Pantzeskaíen eskuetara etozan. Norentzat zan jakin ebanean, onek realaxe bialdu eutsan jabeari; baña bere arek biotzean ikutu eutsan Pantzeska'k. Gauzak Jaungoikuak darabiltzala-ta idazkia be beaí ba-zan Jaungoikuaren duraz bere eskuetara etoíi zala-ta lagun eskatzen eban Austin'i bere burua eutsan Pantzeska'k.

Aitaturiko iru lagunok alkaíekin bat dira basamortuan, gopatz baíiaren aranidazten dabe, ba doaz Eíoma'ra, V. S. Doipuruak araudia zuzenesten dau, -gizon onein gopatzari Anaide txikiizena damotso ta anaideak oituraziziñeskañez gañera, nausitzarik ez'naiteko laugaíena be egiten dabe. Orduan eban Askani'k bere izena, Asis'taí Pantzeskaíena artzeko Urte bi baíu il zan Austin eta Pantzeska egin eben Gopatzburu. Onoimen edeí askoren jabe zan giro erakutsi eban orduan Pantzeska'nak. Bere Gopatza geitu ta zabaltzeko rari biziz gaíetan eukan biotza eta Gotzaren indartze ta garatze ori eten ba otoitz, barau, negar eta, ilduraz eskaeutsan Jaunari. Asmu oíegaz aldatu Italia'tik Espaa'ra, bidazti lez soíiíi maizez eta eskeko anzo junaria aterik batuaz. Ostera onetan neke gogoíak ebazan; baña Jaunaren laguntza ikusi be bai; ekaíen itxasontzia be tzeko afiskutik otoitzaren bidez alkeban Pantzeskak. España'ra eldu ta arerio amuíatuak jazarkatu eben; baña re deun-ospa andiaz eta II eta III bakaldunen laguntzaz arerioen esteeraso gustiak menperatu ta bere Gopatren ainbat etxe baíi irasi ebazan, eta oíenbeste egin eban Italia'n be. Apapala zan gure gizon au. Eíoma'ra landeíetxera doa biziten eta legenaríu artzen dau lagun: V Paul Doipurua kiñitako nausi-malarik ezegaitik be artu nai: apalespena ain maite dau bere lumari "Pantzeska obendi" d Astean iru bidaí ogi ta ur utsaz baraiz zurdatza beti aldean darabil eta gorpastiñaldiak saíi damotsoz. Garbitasuna etariko orban-barik jagon eban Pantzeska'k bizitza osoan eta onetan txiíiíiíi giteko asmu txaíez bialdu eutsoenakume gangar-nabarmenak be Kisto'ko irabazi ebazan. Altaroko Josu'ri ebero ta gartsua dautso ta gau osoak ta itzaí daroaz altara auíean Jaunaren ta jauresten. Andra Mirengazko ere be berezkoa dau Pantzeska'k eta ori zabaltzeko eztau egiten alegia Geideagazko maitasunez gaíetan beti biotza. Etorkizunari igarteko eta baíeneko ezkutuak ezagutzeko argie emon eutsan Jaunak. Beíogei ta ebazala ta Loreto'ko txadonan otoitzarduala, eriotzea ur eukala igaíi ebaotzarako obeto gertu nai ebala-ta, tzea itxi ta zurgupeko zokondo batzan. Neapolis'ko bakaldeíian be Neri'taí Piliparen ikasleta semeak ko batzuk Pantzeska'ren Gopatzean nai ebela-ta, nagusiaren aginduz eradoa Pantzeska. Eldu zaneko, agertzen yako ta bere aítean diño: txe nire Atsedena orain eta betiko eta izan: Jaunak betiko atsedenera eban Pantzeska: eraspenik samuíen ebazan eleizakoak eta bakerik andien zarobe gozaro il zan 1608'gaíen urteko gila'ren 4'an. Jaunaren begietan eder zen eta zintzoen eíiotzea.

E.TA

URKIOLA

Gotzain Jaunaren oneretxiagaz ai Elixa onetan, beste urtietan legaz Deun Andoni'ren Beratziuíen ospatzen bagilaren laugaíen egunian, eta etera emongo ditu Gogo-ekiñaldiak ran, Josu'ren Lagundiko Bernarda 'taí Bernarta'k.

Aíu 1. Onetariko egunetan oi-dabarik ez-egiiia obeto goguan saítu entzuten dira, egiya Jaungoikozkuntzagatxa dan legez, ostatubetan gustiz ibiltia, beintzat alik ixilen ibili zaíi

2.'en. Ezta ondo egun onetan ukijak, negartijak eta saratatsubak eruatia, beintzat Elizkixunak diratian.

3.'en. Andrazkuak soñeko ikusi edo lotsabakuakaz, ez beíez Elixan. Ezta buruba estaldu-baga be. Ez ekiumiak jantzi labuíakin.

SE RECOMIENDA POR SI SOLO EL ALIMENTO INSUPERABLE
ALAR-ONENA
Olo afautzagilientzat eta txitak azteko. Utsik ematen ez duten jatekuak: Aragi aíain eta azuí-irin "Alar Onena".
Especialísimo para gallinas ponedoras y cría de pollitos. Resultados garantizados Harinas de carne, pescado y hueso "Alar Onena".
María J. Esnaola
Miracruz, 21 SAN SEBASTIAN Teléfono 12.014
¡ALERTA! EXIGID SIEMPRE LA MARCA "ALAR ONENA"

Droguería y Perfumería
MANUEL ALVAREZ MUGICA
Pinturas especiales de carrocería
Miracruz, 18 y 20. Tl., 10.618
Donostia

IRULEA
Lencería.—Géneros de punto.—Confección. Mayor, 7. Teléf. 16.029. DONOSTIA

FASHION
Gizonesko - jantzi, korbata eta aber. Joskindegia.
Miracruz, 1. Urrutizkiña 13.682'garren.
DONOSTIA

Eguilegor y Beorlegui
Cafés tostados
Garantizados puros
Urbieta, 49. Teléfono, 15.192
DONOSTIA

EMAKUMES...
Visiten el salón de señoras de MARY ZAPIAIN
Ultimos adelantos
Easo, 7. -- DONOSTIA. -- T. 11.020

EBANISTERIA Y CARPINTERIA MECANICA
Pedro Iparraguirre
Moraza, 15. Donostia. Tl., 11-023

J. M. Sansinenea
Enfermedades de infancia
Garibay, 5, 2.° Teléfono, 12.463.
DONOSTIA.

V. GARAIZABAL
Enfermedades del aparato digestivo y nutrición. Rayos X
ZESTONA GIPUZKOA

Dr. L. ZURIARRAIN
Corazón y pulmones. Rayos X.
Consulta de 11 a 1 y de 3 a 5.
Oquendo, 28, 4.°. T. 12.662. Donostia

La Villa de Bilbao
Muebles, camas aluminio, hierro latón. Coches niños. Relojes pared
Aldamar, 2. T. 10.755. DONOSTIA

Bazar Médico Ortopédico
FAJAS Y BRAGUEROS
Hernani, 1. Teléfono, 15.730
Instrumental médico Donostia

DENTISTA
ALVAREZ MUJICA
Legazpi, 9, 1.° - Teléfono, 13.355
DONOSTIA

DR. VIDARTE
Sistemas nerviosos y mentales.
De 10 a 12 y de 2 a 5.
ELCANO, 10, segundo. -- Donostia.

ESTACION DE ENGRASE A PRESION - VULCANIZADOS
Garage Aracama
A. Miramón, 6 - Tl. 13.988 - DONOSTIA

F. LOIDI ZULAICA
ESPECIALISTA EN ENFERMEDADES DE LA PIEL Y SECRETAS
ALAMEDA, 6, 1.°. - Tl. 12.929. - Donostia

ALMACENES LASAGABASTER
TEJIDOS Y NOVEDADES
DONOSTIA

Dr. ZUBIA
Especialista en enfermedades de OIDOS, NARIZ y GARGANTA.
Legazpi, 1, 3.° Teléfono, 11.908. Donostia

PANIFICADORA LA ESTRELLA
Embeltrán, 2 y 4. — DONOSTIA
Ocho sucursales. - Servicio a domicilio.
Llámenos al teléfono 10.023

J. I. Labayen
ESPECIALISTA
Enfermedades de pulmón
Alameda, 7, primero. — DONOSTIA

ULTRAMARINOS
Elicegui Hermanos. — Casa Delbos.
LEGAZPI, 4 y 6. — Teléfono, 100-91
DONOSTIA

R. REZABAL
DENTISTA
Fuentenrabía, 4 - 1. - Donostia

BAZAR KINTIN
Juguetes, vajillas y artículos para regalos.
Urbieta, 29. — DONOSTIA

Doctor. V. Loidi
OCULISTA
Avenida, 23, 2.°. -- DONOSTIA.

Olaskoaga Hnos.
DROGUERIA — PERFUMERIA
Urbieta, 27. Tel. 15.530—Donostia

BAR RESTAURANT
«INTZA»
Servicio a la carta
Esterlines, 12. DONOSTIA. T. 15714

Elóseguí - Arriola
Huesos, Articulaciones, Deformidades
Prim, 27, segundo. DONOSTIA

Arin y Embil
Muebles. — Orio. Plaza, 7
Casa muy recomendable

Para artículos de niños, corsés y fajas a medida
"MERKIENA"
LEGAZPI, 1. -- DONOSTIA

LA VASCO — NAVARRA
Seguros, accidentes, responsabilidad civil, incendios
J. DENDARIARENA
San Marcial, 26—Donostia.

Confecciones "Onena"
Tejidos y confecciones de ropa blanca.
PASAJES (Guipúzcoa)

FLINTKOTE
Asfalto puro, se emulsiona en frío, contra humedades, impermeabilización de maderas, fachadas, azoteas, etc. Admite el encalado, pintura al óleo, etcétera.
Dirigirse a Enrique Goiri y Cía
Teléfono, 13.619.